



**DEBABARRENA**

Eskualdeko Mankomunitatea  
Mancomunidad Comarcal

**Berehala aplikatzeko neurrien plana,  
gaikako bilketen datuak hobetzeko eta  
biohondakinetan topatzen diren  
desegokien kopurua murrizteko**

2022ko uztaila

## **AURKIBIDEA**

### **1. SARRERA**

### **2. BIOHONDAKINETAN HONDAKIN DESEGOKIEN KOPURUA MURRIZTEA**

EDUKIONTZIETATIK POLTSAK ATERATZEN DITUEN BRIGADA BERRIZ SORTZEA  
INGURUMEN HEZKUNTZA MAILA HOBETZEKO BERARIAZKO KANPAINAK  
ARAU HAUSLEAK IDENTIFIKATZEA ETA ZIGORTZEA

### **3. ONTZIEN GAIKAKO BILKETA HOBETZEA**

ALBOKO KARGA EZARTZEKO PROIEKTUA ONARTZEA  
EDUKIONTZIEN GUNEA LEHENBAILEHEN OSATZEA  
KANPAINAK AREAGOTZEA

### **4. PROPOSAMENEN LABURPENA**

#### **1. ERANSKINA - ALBOKO KARGA EZARTZEKO PROPOSAMENA ETA AZTERKETA EKONOMIKOA, 2022KO MAIATZEAN BILDU ZEN ZERBITZUEN BATZORDEARENA**

## 1.- SARRERA

Ekainaren 20an, GHK-k jakinarazpen bat bidali zuen, agerian uzteko Debabarreneko Mankomunitatetik jasotzen diren biohondakinetan hondakin desegokien kopurua handia dela eta berehalako neurriak hartu behar direla, desegokien %5 baino gutxiago duten biohondakinak berriz lortzeko.



**DEBABARRENAKO MANKOMUNITATEA**  
Att. Josu Arraiz  
**LEHENDAKARIA**  
Egiguren-Tarren Kalea, 2  
20600 Eibar

En Donostia – San Sebastián, a 20 de junio de 2022

**ASUNTO: IMPROPIOS EN EL BIORRESIDUO DE LA MANCOMUNIDAD DE DEBABARRENA**

Estimada Sr. Arraiz:

Le informamos de que GHK ha constatado durante los últimos meses un nivel de impropios inadecuados en el Biorresiduo proveniente de la Mancomunidad de Debabarrena.

Para su seguimiento, recientemente, durante la semana del 23 de mayo y semana del 13 de junio, GHK ha realizado nuevamente una campaña específica de las rutas críticas. Concretamente, en lo que a Debabarrena se refiere se han realizado 4 caracterizaciones de Biorresiduo, cuyos resultados no son en absoluto adecuados. Las 4 caracterizaciones duplican el límite normativo de 5% de impropios establecido (Reglamento del Consorcio de Residuos). Adjunto a continuación los informes de las 4 caracterizaciones realizadas.

Por favor, les requerimos que tomen medidas inmediatas, tales como campañas de sensibilización, inspecciones en los sistemas de recogida de la fracción orgánica, etc ... con el objetivo de volver a obtener un biorresiduo con menor porcentaje de impropios, debiendo ser siempre inferior al 5%.

Agradeciendo su esfuerzo, y reiterando nuestra máxima colaboración en lo que podamos ayudar, les saluda cordialmente

**Cesar Gimeno Sandig**  
Director General  
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, S.A.U.

Uztailaren 7an, GHK-k mezu elektronikoko bat bidali zuen, ontzien gaikako bilketari buruzko datuekin; horien arabera, Debabarrenan biltzen diren ontzien kopurua –biztanleko– ontziak Legazpiko instalaziora bidaltzen dituzten mankomunitateen batezbestekoa baino askoz txikiagoa da; biohondakinen kasuan bezala, premiazko neurriak hartzeko eskatu zuten.

GHK-k emandako datuak:

### BIOHONDAKINETAN TOPATZEN DIREN HONDAKIN DESEGOKIAK:

- Ekainaren 17eko 1. karakterizazioa: **Desegokiak % 9,84**

**MATRIZ DE CARACTERIZACIÓN: BIORRESIDUO**  
**KARAKTERIZAZIO MATRIZEA: BIO-HONDAKINA**

PROCEDENCIA: /JATORRIA: ET ELGOIBAR		LUGAR CARACT: /KARAK.-GUNEA:	EPELE	
FECHA DESCARGA/DESKARGA DATA: 17.06.22		FECHA CARACT:/KARAK.-DATA:	17.06.22	
FRACCIÓN COMPOSTABLE	SUBFRACCIÓN	PESO (Kg.)	%	
ZATIKI KONPOSTAGARRIA	AZPIZATIKA	PISUA (Kg.)	%	
BIORRESIDUO/BIO-HONDAKINA	Restos de comida /Janari-hondarrak	178,33	70,45 %	
	Podas y jardinería/Inusketak eta lorazaintza	16,80	6,64 %	
	Bolsas Compostables/Poltsa konpostagarriak	21,94	8,67 %	
	Celulosa Absorbente/Zelulosa xurgatzailea	11,13	4,40 %	
	Menaje (vasos, cubiertos...) compostable/ Ebeko Tresneri konpostagarri ( edalontziak, mahi-tresnak...)	0,01	0,00 %	
<b>TOTAL FRACCIÓN COMPOSTABLE/ ZATIKI KONPOSTAGARRIA, GUZTIRA:</b>		<b>228,21</b>	<b>90,14 %</b>	
FRACCIÓN RECHAZO/ERREFUS ZATIKA:		PESO (Kg.)/PISUA (Kg.)	%	
RECHAZO/ERREFUSA	PAPEL-CARTÓN	5,87	2,32 %	
	VIDRIO/BEIRA	0,12	0,05 %	
	PLÁSTICOS/PLASTIKOAK	12,47	4,93 %	
	METALES/METALAK	0,69	0,27 %	
	BRICKS/ BRICK	0,38	0,15 %	
	RESTO/ GAINERAKOA	5,39	2,13 %	
<b>TOTAL FRACCIÓN RECHAZO/ ERREFUS ZATIKA, GUZTIRA:</b>		<b>24,92</b>	<b>9,84 %</b>	
<b>TOTAL (Kg) CARACTERIZADO/KARAKTERIZATUA, GUZTIRA (Kg):</b>		<b>253,13</b>		

- Ekainaren 17eko 2. karakterizazioa: **Desegokiak % 9,87**

**MATRIZ DE CARACTERIZACIÓN: BIORRESIDUO**  
**KARAKTERIZAZIO MATRIZEA: BIO-HONDAKINA**

PROCEDENCIA: /JATORRIA: ET ELGOIBAR		LUGAR CARACT: /KARAK.-GUNEA:	EPELE	
FECHA DESCARGA/DESKARGA DATA: 17.06.22		FECHA CARACT:/KARAK.-DATA:	17.06.22	
FRACCIÓN COMPOSTABLE	SUBFRACCIÓN	PESO (Kg.)	%	
ZATIKI KONPOSTAGARRIA	AZPIZATIKA	PISUA (Kg.)	%	
BIORRESIDUO/BIO-HONDAKINA	Restos de comida /Janari-hondarrak	190,68	74,96 %	
	Podas y jardinería/Inusketak eta lorazaintza	4,53	1,78 %	
	Bolsas Compostables/Poltsa konpostagarriak	18,85	7,41 %	
	Celulosa Absorbente/Zelulosa xurgatzailea	15,20	5,98 %	
	Menaje (vasos, cubiertos...) compostable/ Ebeko Tresneri konpostagarri ( edalontziak, mahi-tresnak...)	0,00	0,00 %	
<b>TOTAL FRACCIÓN COMPOSTABLE/ ZATIKI KONPOSTAGARRIA, GUZTIRA:</b>		<b>229,26</b>	<b>90,13 %</b>	
FRACCIÓN RECHAZO/ERREFUS ZATIKA:		PESO (Kg.)/PISUA (Kg.)	%	
RECHAZO/ERREFUSA	PAPEL-CARTÓN	5,18	2,04 %	
	VIDRIO/BEIRA	0,44	0,17 %	
	PLÁSTICOS/PLASTIKOAK	14,88	5,85 %	
	METALES/METALAK	0,74	0,29 %	
	BRICKS/ BRICK	0,40	0,16 %	
	RESTO/ GAINERAKOA	3,48	1,37 %	
<b>TOTAL FRACCIÓN RECHAZO/ ERREFUS ZATIKA, GUZTIRA:</b>		<b>25,12</b>	<b>9,87 %</b>	
<b>TOTAL (Kg) CARACTERIZADO/KARAKTERIZATUA, GUZTIRA (Kg):</b>		<b>254,38</b>		

**ONTZIEK BILKETARI BURUZKO DATUAK:**

RECOGIDA DE ENVASES LIGEROS EN EL AMBITO DE LA PLANTA DE SEPARACION DE LEGAZPI. 2022							
CANTIDADES RECOGIDAS SELECTIVAMENTE. 2022							
Entidad recogida	Sasieta	Alto Deba	Bajo Deba	Urola Medio	Azpeitia	Urola-Kosta	Total mes
Convenio Entidad	PV004	PV014	PV015	PV012	PV065	PV013	
Enero	310.140	206.800	123.400	46.280	56.340	173.340	916.300
Febrero	272.180	183.640	109.660	44.680	48.880	149.440	808.480
Marzo	302.040	206.440	126.360	53.680	53.260	169.620	911.400
Abril	284.380	183.960	110.440	45.340	50.680	166.080	840.880
Mayo	312.150	206.240	119.280	50.940	55.320	174.780	918.710
Junio	311.500	204.080	119.580	51.400	56.180	180.400	923.140
<b>Total anual 2022</b>	<b>1.792.390</b>	<b>1.191.160</b>	<b>708.720</b>	<b>292.320</b>	<b>320.660</b>	<b>1.013.660</b>	<b>5.318.910</b>
<b>Poblacion INE 2020</b>	<b>69.906</b>	<b>62.707</b>	<b>72.772</b>	<b>17.364</b>	<b>14.936</b>	<b>44.114</b>	<b>281.799</b>
<b>Ratio kg/hab/año</b>	<b>51</b>	<b>38</b>	<b>19</b>	<b>34</b>	<b>43</b>	<b>46</b>	<b>38</b>

GHK-k emandako datuak

**EGINDAKO JARDUKETAK:**

Datu horiek hobetzearren, azken urtean, honako kanpaina hauek egin dira ingurumen hezkuntzaren arloan:

- **Azalera handietan egindako kanpaina:** Debabarreneko supermerkatuei eta hipermerkatuei zuzendurikoa; hondakinak behar bezala bereiztea proposatuta, bisitetan egiaztatu zen. Azkenik, kudeaketa onaren bereizgarriak eman zitzaizkien hondakinak ondo kudeatzen dituztenei.
- **Gastronomia elkarteetan egindako kanpaina:** Elkarteetan hondakinak behar bezala bereizteko baliabideak jartzea eta bereizketa zuzena sustatzea.
- **Hondakinak murrizteko kanpaina:** Oro har, herritarrei zuzendua, edukiontzien guneak ezarrita; informazioa *in situ* eskaini da, hondakinen bolumena gutxitzearen garrantzia azpimarratuta.
- **Establezimendu txikiei zuzenduriko kanpaina:** Azalera handiei zuzendurikoa bezalako kanpaina, baina saltoki txikiei zuzendutakoa.
- **Jantokia duten enpresetan egindako kanpaina** Jantoki propioa duten eta, beraz, hondakin organiko asko sortzen duten enpresei zuzendurikoa. Hondakin organikoak ondo bereizteko materiala banatu da lehenengo bisitan; hurrengoan, hondakinak behar bezala bereizten diren egiaztatu da.

- **“Horian Zer?” kanpaina:** Herritar guztiei zuzendurikoa; postontzietan 32.390 gida (A4 tamainako 12 orrialdekoak) banatu dira; gaikako bilketa sustatzeaz gain, hori koloreko edukiontzietan zein hondakin mota utzi behar den jakinarazi da.

Onartuta daude eta laster gauzatuko dira honako hauek:

- **Fruta-dendei zuzenduriko kanpaina:** Hondakinak ondo bereizteko 2020an egindako kanpaina indartzea da helburua. Hondakin organikoak ondo bereizten diren egiaztatzeke eta behar materialen berri jasotzeko bisitak.
- **Pintxo tabernei eta jatetxeei zuzenduriko kanpaina:** 2020an egindako kanpainaren jarraipena egitea da helburua. Kanpaina horretan, bisitak egingo dira, hondakin organikoak ondo bereizten diren egiaztatzeke.
- **Hondakinak murrizteko kanpaina:** Herritar guztiei zuzendurikoa, kalean zehar egingo da, 2021ean egindako kanpainan bezala.

Hala ere, egiten edo egingo diren kanpainak gorabehera, hobetu behar dira gaikako bilketaren datuak, batez ere ontzien bilketari dagokionez; halaber, hondakin organikoetan desegokiak ehunekoak jaitsi behar da.

Hori guztia dela eta, honako premiazko neurri hauek proposatzen dira, Batzarrak aztertu eta onar ditzan:

## **2. BIOHONDAKINETAN HONDAKIN DESEGOKIEN KOPURUA MURRIZTEA**

### **EDUKIONTZIETATIK POLTSAK ATERATZEN DITUEN BRIGADA BERRIZ SORTZEA:**

2018tik 2020ra bitartean, Mankomunitateak bi langilez osatutako zerbitzu bat zeukan; langile horiek Mankomunitatean dauden biohondakinatarako edukiontzi guztiak begiratzen zituzten, gaizki utzitako hondakin desegokiak kentzeko, edukiontzi horiek hustu aurretik.

- **Abantailak:**

Hondakin desegokiak edukiontzitik zuzenean kentzen direnez, jaitsi egiten da haien kopurua.

Behar ez bezala utzitako hondakinen jarraipena egin daiteke edukiontzi gunearan arabera. "Puntu beltzak" identifikatzea.

Hondakinak bereizi gabe edo ondo sailkatu gabe uzten dituzten eta, horrela, ordenantza hausten duten pertsonak identifikatzeko aukera ematen du.

- **Desabantailak:**

Kostua handitzea: berehala bi peoi gidari kontratatzea eskatzen du, kostua honako hau izanik:

Sueldo Bruto mensual	Paga extra	Paga vacaciones	Seg.Social mensual	Coste Anual por puesto (incluido prorrateo paga extra y vacaciones)
2.443,97 €	1.981,60 €	2.443,97 €	848,06 €	<b><u>46.759,56 €</u></b>

2 langile behar direnez, biei dagokien urteko kostua: **93.519,12 €**

#### **INGURUMEN HEZKUNTZA MAILA HOBETZEKO BERARIAZKO KANPAINAK:**

Biohondakinetatik hondakin desegokien zabor poltsak ateratzeko brigada sortuz gero, jakin ahal izango da non uzten diren hondakin desegoki gehienak, baita zer motatakoak diren ere.

“Puntu beltz” horiek oinarri hartuta, berariazko sentsibilizazio kanpainak egin ahalko dira, zonaka.

- **Abantailak:**

Kanpainak biztanle jakin batzuei zuzentzeko aukera sortzen da, ingurumen hezkuntzako kanpainak hondakinak behar ez bezala uzten diren zona espezifikoetan egin daitezke eta.

- **Desabantailak:**

Ekonomikoak; kanpaina horien kostu ekonomikoa **5.000 euro ere izan daiteke.**

#### **ARAU HAUSLEAK IDENTIFIKATZEA ETA ZIGORTZEA:**

Hondakin organikoetarako edukiontzietatik poltsak kenduta, udalerriko udaltzaingoaren laguntzaz, ikuskapena egin daiteke arau hauslea identifikatzeko. (*Debabarrena Eskualdeko*

*Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan etxeko eta merkataritzako hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzaren 36. artikulua oinarri hartuta)*

Arau hausleak identifikatzen badira, hasiera batez, ohartarazpena egingo zaie, arau hauste mota eta balizko zehapenak (isuna) adierazita; zehapen horiek aplika daitezke, ordenantza berriz urratu dela antzematen bada.

Arau haustea berriro egiten denean, dagozkion zehapen espedienteak hasiko dira. Espediente horiek irekiko zaizkie hondakin desegokiak edukiontzietan zein edukiontzien ondoan uzten dituztenei.

Zehapen espedienteak irekitzeko eta zehapenak ezartzeko erabakiak komunikabideen bidez jakinaraziko zaizkie herritarrei, gizartean oihartzuna izan dezaten, ideia hau hedatzeko: “hondakinak behar ez bezala edo edukiontzietatik kanpo uzten dituenak zehapena jasoko du”.

- **Abantailak:**

Ingurumena babesteko oinarritzko printzipioetako bati erantzuten zaio: kutsatzen duenak ordaintzen du.

Kostua ez da igotzen, prozedura Mankomunitateak dituen baliabideekin bideratzen delako. (auzibidezko errekursoak jartzen ez badira)

- **Desabantailak:**

Zehapen espedienteak jasotzen dituzten herritarren pozik eza eragitea.

Espedienteak auzibidera bideratzeko arriskua.



### 3. ONTZIEN GAIKAKO BILKETA HOBETZEA

GHKtik jasotako datuen arabera, Legazpiko instalaziora Sasietako Mankomunitateak bidaltzen du ontzien kantitate handiena, hain zuzen, Debabarreneko Mankomunitateak bidaltzen duenaren bikoitza baino gehiago, mankomunitate bietako biztanle kopurua oso antzekoa dela kontuan hartuta.

RECOGIDA DE ENVASES LIGEROS EN EL AMBITO DE LA PLANTA DE SEPARACION DE LEGAZPI. 2022							
Entidad recogida	CANTIDADES RECOGIDAS SELECTIVAMENTE. 2022						Total mes
	Sasieta	Alto Deba	Bajo Deba	Urola Medio	Azpeitia	Urola-Kosta	
Enero	310.140	206.800	123.400	46.280	56.340	173.340	916.300
Febrero	272.180	183.640	109.660	44.680	48.880	149.440	808.480
Marzo	302.040	206.400	126.360	53.680	53.260	169.620	911.400
Abril	284.380	183.960	110.440	45.340	50.680	166.080	840.880
Mayo	312.150	206.240	119.280	50.940	55.320	174.780	918.710
Junio	311.500	204.080	119.580	51.400	56.180	180.400	923.140
<b>Total anual 2022</b>	<b>1.792.390</b>	<b>1.191.160</b>	<b>708.720</b>	<b>292.320</b>	<b>320.660</b>	<b>1.013.660</b>	<b>5.318.910</b>
<b>Poblacion INE 2020</b>	69.906	62.707	72.772	17.364	14.936	44.114	281.799
<b>Ratio kg/hab/año</b>	51	38	19	34	43	46	38

Sasietako Mankomunitatearen webgunean argitaratutako datuen arabera, honako laburpen hau jaso daiteke, ontziak biltzeko tokiari dagokionez:

SASIETA ENVASES 2022 (Certificado Legazpi)									
	Enero	Febrero	Marzo	Abril	Mayo	Junio	Total	media mensual	% sobre el total
Carga Lateral	278.160	243.580	268.760	256.720	279.540	272.600	1.599.360	266.560	89,36%
Carga Trasera	18.000	16.780	19.860	16.260	19.390	22.020	112.310	18.718	6,28%
Puerta a Puerta	13.980	11.820	13.420	11.400	13.220	14.240	78.080	13.013	4,36%
<b>Total</b>	<b>310.140</b>	<b>272.180</b>	<b>302.040</b>	<b>284.380</b>	<b>312.150</b>	<b>308.860</b>	<b>1.789.750</b>	<b>298.292</b>	

Hortaz, ontzien bilketari dagokionez, Sasietak 3 sistema dauzka:

Atez ate: Kantitate osoaren % 4,36 biltzen da horrela.

Atzeko karga: Kantitate osoaren % 6,28 biltzen da horrela.

Alboko karga: Kantitate osoaren % 89,36 biltzen da horrela.

Hiru sistema horietatik, kalean dauden eta alboko kargako sistema duten edukiontzietan biltzen dira ontzi gehienak, hain zuzen, bildutako ontzien ia % 90 biltzen da horrela Sasietan.

Datu analogikoak Debabarreneko Mankomunitatean aztertu dira:

Kilos de envases DEBABARRENA 2022									
2022	Mallabia	Ermua	Eibar	Soraluze	Elgoibar	Mendaro	Deba	Mutriku	Total
Enero	1.786	24.527	49.059	4.975	19.161	3.278	8.588	12.027	<b>123.400</b>
Febrero	1.767	21.380	41.527	4.534	16.673	3.086	9.090	11.603	<b>109.660</b>
Marzo	2.189	24.256	46.227	5.447	19.225	3.721	10.622	14.672	<b>126.360</b>
Abril	1.825	20.536	40.402	5.037	17.178	3.344	9.305	12.813	<b>110.440</b>
Mayo	2.092	22.619	43.700	5.588	18.105	3.604	10.191	13.382	<b>119.280</b>
Junio	2.129	23.280	42.632	4.757	16.668	3.652	11.403	15.058	<b>119.580</b>
<b>Total</b>	<b>11.788</b>	<b>136.598</b>	<b>263.547</b>	<b>30.338</b>	<b>107.009</b>	<b>20.685</b>	<b>59.200</b>	<b>79.555</b>	<b>708.720</b>
<b>Población 2021</b>	1.172	15.789	27.483	3.904	11.453	1.983	5.456	5.284	<b>72.524</b>
<b>Kg/hab/año</b>	20,12	17,30	19,18	15,54	18,69	20,86	21,70	30,11	<b>19,54</b>

Debabarreneko udalerrietan bildutako ontzien ratioak, kilogramo/biztanleko, honako hauek dira: urtean 15 eta 30 kilogramo/biztanleko bitartean. Sistema guztietan, Legazpin ontziak uzten dituzten mankomunitate guztien batezbestekoaren azpitik gaude eta Sasieta baino askoz ere ontzi gutxiago biltzen dugu.

DEBABARRENA ENVASES 2022									
	Enero	Febrero	Marzo	Abril	Mayo	Junio	Total	media mensual	% sobre el total
Iglús (en todos los municipios)	90.960	79.960	87.660	77.420	85.640	83.380	505.020	84.170	71,26%
Carga Lateral + soterrados (Mallabia, Er	27.180	23.040	30.140	25.740	26.120	26.960	159.180	26.530	22,46%
Carga Trasera (Mallabia, Deba, Mutriku)	5.260	6.660	8.560	7.280	7.520	9.240	44.520	7.420	6,28%
<b>Total</b>	<b>123.400</b>	<b>109.660</b>	<b>126.360</b>	<b>110.440</b>	<b>119.280</b>	<b>119.580</b>	<b>708.720</b>	<b>118.120</b>	

Ontzien bilketari dagokionez, Debabarrenak 3 sistema dauzka:

Igluak: Kantitate osoaren % 71,26 biltzen da horrela.

Alboko karga: Kantitate osoaren % 22,46 biltzen da horrela.

Atzeko karga: Kantitate osoaren % 6,28 biltzen da horrela.

Hiru sistema horietatik, kantitate handiena biltzen dituen sistema igluak dira (karga bertikala), ontzien % 71,26; hala ere, edukiontzi mota bakoitzak biltzen dituen hondakinen kantitatea aztertuta:

	media mensual	nº de contenedores	Kg/cont./mes
Iglús (en todos los municipios)	84.170	256	328,79
Carga Lateral + soterrados (Mallabia, Er	26.530	43	616,98
Carga Trasera (Mallabia, Deba, Mutriku)	7.420	46	161,30
<b>Total</b>	<b>118.120</b>	<b>345</b>	

Igluen bidez hilabetean bildutako ontzien kantitatea, edukiontzi bateko, 328,79 kilogramo da; alboko kargako edukiontzi bakoitzeko, aldiz, 616,98 kilogramo. Hau da, alboko kargako edukiontzi bakoitzak iglu batek bildutakoaren ia bikoitza biltzen du.

Laburbilduz:

- Kilogramo/biztanleko ratioa Sasietan Debabarrenekoaren halako bi baino gehiago da, eta erabiltzen duten bilketa sistema nagusia albotik kargatzeko edukiontziak dira.
- Debabarrenean, udalerrikako ratioa 15 eta 30 kilogramo/biztanleko bitartekoa da, hau da, udalerrri guztietan, ontziak Legazpira eramaten dituzten gainerako mankomunitateetan baino kantitate txikiagoa.
- Debabarrenean, alboko kargako edukiontzi bakoitzeko biltzen diren ontzien kantitatea iglu bakoitzak biltzen duenaren ia bi halako da.

Hortaz:

Askotariko faktoreek izan dezakete eragina Sasietako eta Debabarreneko ontzien gaikako bilketan, atez ateko bilketan eta industrialdeetako bilketan. Hala ere, Sasietan, ontzien kantitate handiena biltzen duen sistema alboko kargako edukiontziak dira.

Ontzien bilketari buruzko Debabarreneko datuak aztertzen baditugu, alboko kargako sistema erabilia, edukiontzi bakoitzak biltzen dituen ontzien kantitatea ia bi aldiz handiagoa da iglu bakoitzak biltzen duena baino.

Hori dela eta, honako premiazko neurri hauek proposatzen dira, Batzarrak aztertu eta onar ditzan:

**ALBOKO KARGA EZARTZEKO PROIEKTUA ONARTZEA**

2022ko maiatzaren 24ko Zerbitzu Batzordean aurkeztutako proposamena –alboko kargako sistema ezartzeko– onartzea; horri buruzko dokumentua txosten honi erantsi zaio. Dokumentua oinarri hartuta, ibilbideak eta baliabideak aztertzea, proiektua gauzatzeko bitarteko propioak ala kanpokoak beharko diren jakiteko.

- **Abantailak:**

Irekidura handiagoa duten ahoak; pedala instalatzeko eta tapak pedalez irekitzeko aukera. Elementu horiei esker, herritarrek gogo handiagoz erabiltzen dituzte edukiontziak.

Garbiketa mekanizatua.

Lerrokatzeko eta zentratzeko sistema jartzeko aukera (zentragailuak instalatzea, edukiontziak txukun eta espaloitik beti distantzia berean uzteko, iristea errazte aldera)

Iristeko errazak: Mugikortasun urria duten pertsonei iristea errazteko osagarriak.

Goitik husteko aukera; zailagoa da hondakinak barruan harrapaturik geratzea.

Bilketa optimizatua; bilketa egiteko denbora laburragoa denez, dirua aurrezten da; ondorioz, bilketa gune gehiago jar daitezke, eta edukiontziak maiztasun handiagoz hustu.

- **Desabantailak:**

Edukiontziak husteko, alboko kargako sistema erabili behar da; horrek esan nahi du edukiontziak eskuinaldean jarri behar direla, aurrera egiteko noranzkoaren arabera. Gune askoren kasuan, edukiontziak beste toki batera eraman behar izatea, aparkalekuak eta espaloiak hartzea eta iritsi ezin diren tokietan jartzea ekarriko du horrek.

## **EDUKIONTZIEN GUNEA LEHENBAILEHEN OSATZEA**

Alboko karga ezartzeko proposamenak, bilketa sistema aldatzeaz gain, gaur egun osatu gabe dauden guneak osatzea planteatu zuen. Etxeko bilketa sistema osatzen duten 334 guneetatik, % 39 daude osatu gabe, hau da, ez dituzte 5 hondakin motak biltzeko edukiontziak (errefusa, biohondakinak, ontziak, paper eta kartoia, eta beirakiak).

Hala ere, alboko karga ezartzeko prozesuak –onartzen bada– gutxi gorabehera urtebeteko iraupena izango du.

Bestalde, Mankomunitateak edukiontzien stock bat dauka, kalean dauden edukiontzien matxuratzen direnean edo kalte hartzen dutenean ordeztzeko. Gaur egun, ontzietarako edukiontziei dagokienez, honako hauek ditu Mankomunitateak:

ALBOKO KARGA: 8 unitate.

IGLUAK: 14 unitate.

Unitate horiek erabiltzea proposatzen da, ahalik eta gune gehien osatzeko eta edukiontzi berriak hornitzeko lizitazio prozesua hasteko.

- **Abantailak:**

22 gune ere osa daitezke ontzietarako edukiontziekin, alboko kargako sistema martxan jarri arte itxaron gabe.

Berehala instalatzen dira.

- **Desabantailak:**

Ontzietarako edukiontzirik gabe geratzen gara, lizitazioa egin eta stock berria jaso arte. Denbora horretan, edukiontziak hondatzen badira, ezin izango dira ordeztu.

## KANPAINAK AREAGOTZEA

Ingurumen hezkuntzako kanpainen kopurua areagotzea, ontzi hondakinak sortzen diren tokietan bereiztea eta hori koloreko edukiontzietan uztea sustatzeko:

- **ONTZI HONDAKINEN SORTZAILE HANDIAK DEBABARRENEAN:** Hotelak, ospitaleak, egoitzak eta abarrei zuzendurikoa; bilketa guneen balorazioa egingo da eta edukiontziei, zakarrontzietan eta abarrei loturiko beharrak aztertuko dira. Kostua 1.800 € izango da.
- **"INFORMAZIO TOTEMAK" EROSTEA:** Mankomunitateak informazio totemak erosiko ditu, udalerrri batetik bestera eramateko; totemak toki jendetsuenetan edo udalerrri bakoitzeko interes guneetan jarriko dira. Totemen kostua 11.000 € izango da.



Totemaren adibidea

- **Abantailak:**

Ingurumen hezkuntza sustatzea eta gaikako bilketaren garrantzia azpimarratzea.

- **Desabantailak:**

Kostu ekonomikoa; kanpaina bien kostua **11.800 € izango dela aurreikusten da.**



## **4. PROPOSAMENEN LABURPENA:**

### **BIOHONDAKINETAN HONDAKIN DESEGOKIEN KOPURUA MURRIZTEA**

- **EDUKIONTZIETATIK POLTSAK ATERATZEN DITUEN BRIGADA BERRIZ SORTZEA:**  
Abantailak: Hondakin desegokiak kopurua zuzenean jaisten da. "Puntu beltzak" identifikatzea ahalbidetzen du. Arau hauleak identifikatzeko aukera ematen du.  
Desabantailak: Kosta handitzea: 2 langile; bien urteko kostua: 93.519,12 €
- **INGURUMEN HEZKUNTZA MAILA HOBETZEKO BERARIAZKO KANPAINAK:**  
Abantailak: Biztanle konkretuei zuzenduta egon daitezke, ingurumen hezkuntzako kanpainak zona espezifikoetan egiteko.  
Desabantailak: kostu ekonomikoa 5.000 € izango dela aurreikusten da.
- **ARAU HAUSLEAK IDENTIFIKATZEA ETA ZIGORTZEA:**  
Abantailak: "Kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa bete daiteke. Ez du kostua handitzen.  
Desabantailak: Herritarren pozik eza eragitea. Espedienteak auzibidera bideratzeko arriskua.

### **ONTZIEN GAIKAKO BILKETA HOBETZEA**

Sasietako eta Debabarreneko datuak aztertu ondoren, Sasietan gehien erabiltzen den sistema alboko kargako edukiontzia direla egiaztatuta. Eta, Debabarrenean, alboko kargako edukiontzi bakoitzak iglu bakoitzak biltzen duen kantitatearen bikoitza biltzen duela egiaztatuta:

- **ALBOKO KARGA EZARTZEKO PROIEKTUA ONARTZEA**  
Abantailak: Ahoi eta irekidurei esker, herritarrek gogo handiagoz erabiltzen dituzte edukiontziak. Garbiketa mekanizatu. Garbitzeko errazagoak. Lerrokatzeko eta zentratzeko sistema jartzeko aukera. Eskura daitezkeen osagarriak. Bilketa optimizatu, biltzeko denbora laburragoa.  
Desabantailak: Edukiontziak zirkulazioaren eskuinean jarri behar dira, eta batzuetan ezinezkoa da.
- **EDUKIONTZIEN GUNEA LEHENBAILEHEN OSATZEA**  
Abantailak: 22 gune ere osa daitezke berehala.  
Desabantailak: erosketa berriz egin arte ontzietarako edukiontzirik gabe geratuko gara.
- **KANPAINAK AREAGOTZEA**  
Abantailak: Ingurumen hezkuntza areagotzea.  
Desabantailak: kostu ekonomikoa; kanpaina bien kostu zenbatetsia 11.800 € izango da.